

HUHEZIk argitaratu berri du Memoria 2005-2006 ikasturteari dagokiona

2007/03/08

Mondragon Unibertsitatearen **Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak**, HUHEZIk, argitaratu berri du 2005-2006 ikasturteko Memoria. Izan ere, joan den ikasturtea garrantzitsua izan da gure fakultatearentzat, hainbat pisuzko aldaketa ekarri baitzituen.

Memoriak aldaketa horien berri ematen du. Azaltzen du, adibidez, zelan geratu ziren **departamenduak** unibertsitatea berregituratu ondoren, eta aipatzen ditu, bereziki, **Hizkuntzen Departamendua** eta **Praktiker** gestio unitatea: lehena HUHEZIn geratu zen, eta bigarrena Oñatira joan zen, Enpresa Zientzien Fakultatera.

Memoriak azaltzen du, halaber, zelan sortu zen karrera berri bat, **Ikus-entzunezko Komunikazioa**, eta horri laguntzeko zelan eratu ziren hainbat baliabide; hala nola, **multimedia gela**. Oroit-idatziak jasotzen ditu, orobat, fakultateak zer ahalegin egin zituen iaz **nazioartera** zabaltzeko.

